



TEKLATU TALDEA - GABONETAKO KONTZERTUA

Piano kontzertua gaur, 4 eskutara eta taldeka

'Hernani' Musika Eskolako teklatu taldeak kontzertua emango du gaur, 18:30etan hasita Milagrosan.

GABONETAKO egitarauan bete-betean sartuta gaude dagoeneko. Astelehenean herriko hainbat abesbatza entzuteko aukera izan zen.

Gaur berriz, 'Hernani' Musika Eskolako teklatu taldeak Gabonetako kontzertua

emango du, arratsaldeko 18:30etan hasita, Milagrosan.

4 eskutara eta taldeka

Gaurko kontzertuan entzun ahal izango diren piezak 4 eskutara edota taldeka joko dituzte Musika Eskolako

ikasleek. Guztira, 5 bikote eta 3 talde ariko dira pianoa jotzen.

Bikote bakoitzak abesti bana interpretatuko du, lau eskutara, eta taldeek berriz, hiru-launa kanta joko dituzte, txandaka.

Datozen egunetan, emanaldi gehiago

Gaur bertan, Ereñotzun beste kontzertu bat izango da, 19:00etatik aurrera. Hurrengo egunetan ere, beste hainbat emanaldiz gozatzeko aukera izango da. ||

❖ EREÑOTZU

Abesbatzak kantuan gaur, Ereñotzun

Gaur arratsaldeko 19:00etatik aurrera kontzertua emango dute Ereñotzuko elizan, Txirrita eskolako ikasleen abesbatzak, Doinu Zale Musika Eskolako ikasleek eta Ozenki abesbatzak. Zuzendari lanetan ariko dira Gema Ines, Lara Mitxelena, eta Naiara eta Imanol Kamio. ||

❖ BARRIKOTEA, larunbatean

Ur-Mia elkarteak antolatuta, barrikotea izango da larunbatean, iluntzeko 20:30etatik aurrera, Ur-Mia elkartearen bertan. Izena emateko zerrendak jarrita daude dagoeneko. ||

❖ OSIÑAGA

Mus Txapelketa, igandean

Auzoko Mus Txapelketa antolatu du Osiñagako auzo elkarteak iganderako, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Saria bi txerrikume izango dira. Izen-emateak 20 euro balio du bikoteko, eta Elorribi sagardotegian eman behar da izena, igandean bertan. ||

❖ SORTU

Bozketa gaur, oinarri ideologikoen inguruan

Sorturen inguruko eztabaidak irekita jarraitzen du, eta gaur oinarri ideologikoen inguruko emendakinen edo zuzenketen bozketa egingo da, arratsaldeko 19:30etan arkupeetan. ||

❖ ANBOTO TABERNA

Mus azkarra, larunbatean

Gabonetako Mus azkarra antolatu du Anboto Tabernak larunbatean, 16:00etatik aurrera. Sariak izango dira lehenengo 4 bikoteentzako. Lehenbailehen izena eman behar da, Anboton bertan. ||

«Taldea bat sortu dugu Kiden, abentura-kirolak ezagutu, eta konpetitzeko»

Natura eta abentura kirolak maite, edo kirol mota hauek ezagutu nahi dituztenentzat elkartzeko gunea sortu da, Kide kafetegian. Aurkezpena bihar egingo dute, 19:30etan Kiden.

MENDIAN eta naturarekin nahastuta egiten diren abentura kirolak maite dituzte Rafa Romerok eta Iñaki Eizmendik. Hori horrela, kirol mota hauek ezagutzera emateko, eta batak bestearengandik ikasi ahal izateko, Hernanin talde bat sortzea dute helburu.

Kide kafetegia bihurtuko da elkartzeko gunea, eta bihar arratsaldeko 19:30etan bertara azaltzeko deia luzatu diete, abentura kirolak maite dituztenei edota kirol mota hauek ezagutzeko gooa dutenei.

Erreferentzia gunea

Romerok eta Eizmendik azaldutakoaren arabera, asmoa ez da klub bat sortzea.

«Ideia da kirol mota hauek ezagutzera ematea, laguntalde bat sortzea, batak besteari erakutsi ahal izatea, eta elkarrekin irteerak egin ahal izatea. Mendiko abentura kirol hauek gustoko ditugunontzat erreferentzia gunea sortu nahi dugu, nora jo jakiteko. Ondoren, denon artean emango diogu forma taldeari.»

Konpetizioa, edonoren mailan Hernanin badira mendiko irteerak egin edota taldekako kirolak praktikatzeko aukera ematen duten taldeak. Baina Kide kafetegian sortu nahi den taldearen ezaugarri klabea da, konpetizioetan parte hartzeko aukera emango dela.

«Konpetizioetan parte hartzeko aukera eman nahi dugu, eta taldea erreferentzia gune bihurtu dadila, konpetizioen berri jakiteko. Baina garrantzitsuena ondo pasatzea da, edonoren mailako konpetizioak egin daitezke.»

Ride-a eta mendi lasterketak

Romero eta Eizmendi, Ride modalitateko kirolean eta mendi lasterketetan ibiltzen dira bereziki. Oraingoan, kirol hauen berri emateko asmoa dute, eta jendeak proposatzen duen edozertara irekita daude. Hasteko, abenduaren 29an Aiako Harrietan egingo den mendi-orientazio probetan parte hartzeko oinarriak irakatsiko dituzte. «Altxorraren bila jolasean aritzea bezala da, maila haundiagoan.» ||



Rafa Romero eta Iñaki Eizmendi, Ride abentura kirol eta mendi lasterketa zaleak.

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ANTZIOLA
OKINDEGIA

Brintza

Lan-Aholkularitza -
Fiskala -
Aseguruak Inbertsioak -
Zerbitzu Juridikoak -

www.brintza.com

Urbietan 15 - Hernani
Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892

AITAN - ETXE
TABERNA

ASTEBURUETAN
AFARIK

Larramendi, 15
943 55 00 46

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauz**: **Etxebeste** Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA ● **GAUR** Hego-haizea indartu egingo da eta bolada gogorak espero dira egunaren azkeneko. Ondorioz, tenperaturek gora egingo dute. Min.11°/Max.18°

BIHAR Hego-haize zakarra eta euria izango dira nagusi. Tenperaturak berri, antzeko jarraituko du, baina haizeak giro ezatsegina sortuko du. Min.11°/Max.16° (euskaime)

HERRIRA MUGIMENDUA - GABONETAKO EGITARUA

Ekintza ugari eta denda zabalik

Herrira mugimenduak ekintza ugari antolatu ditu Gabonetarako. Lehenengo bihar izango da, Adierazpen Eguna, hain zuzen.

GABONETARAKO egitarau bete-betea prestatu du Herrira mugimenduak.

Lehenengo bihar bertan izango da. Batetik, Adierazpen Eguna antolatu dute, urtarrilaren 12an Bilbon egingo den manifestaziorako atxikimendua adierazteko. Beraz, bihar pegatinak jartzeko deia luzatu dute, eta bestalde, dei egin dute preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenak antolatzeke (pegatinak lortzeko edo ekimenak antolatzeke laguntza eskatzeko: hernanira@gmail.com).

Abenduak 20, Adierazpen Eguna: urtarrilaren 12ko mobilizazioari atxikimendua adierazi.
 -17:00etan Tilosetan auzolana.
 -18:00etan osoko bilkura udaltxean.
 -19:00etan *Zu ikusteko bidean* liburuaren aurkezpena, Ikatzan.

Abenduak 23, Herrira noa: Saio kulturala Billabonako Gurea kultur etxean. Sarrerak salgai Garinen.

Abenduak 24, Olentzeroa eta mariskadaren zozketa, 20:00etan.

Abenduak 28, Kalejira musikatua: 20:00etatik aurrera, herriko 4 gunetatik hasita.

Abenduak 31, Martutenera martxa: 11:00etan Astigarragatik.

Urtarrilak 12, Bilbora! Autobus txartelak salgai, Txili, Oiinddi, Garin eta Zintzarrin.

Era berean, mozioa aurkeztuko da, 18:00etan udaltxean, Bilboko manifestaziorako atxikimendua eskatuz. Bestalde, Gari Garaialderen *Zu ikusteko bidean* argazki

liburua aurkeztuko da, bihar baita ere, 19:00etan Ikatzan.

Hurrengo egunetan ekintza gehiago izango dira, eta Elkartasun Denda irekita egongo da, Plazako Kranka dendan. ||

BOLEIBOLA - ESTHER LOPEZ - HARO RIOJA VOLEY CLUB

«Denboraldiko lehen helburua bete dugu: Superkopa irabaztea»

Esther Lopez hernaniarra Haro Rioja Voley Club taldeko liberoa da aurten. Primeran egokitu da taldean, eta bikain hasi dute denboraldia.

HARO Rioja Voley Club taldeko libero berria da aurten denboraldian, Esther Lopez jokalaririk hernaniarra.

Kronikari adierazi dienez, oso gustora dago Lopez talde berrian. «Taldea honetan jokatzeko eman zaidan aukerarekin oso pozik eta oso gustora nago».

«Denboraldia bikain hasi dugu»

Oraindik goiz dela dio Lopezek, baina onartzen du «denboraldia bikain hasi» dutela. «Denboraldiko lehenengo helburua zen Espainiako Superkopa irabaztea, eta lortu dugu». Horrez gain, Superligan lehenengo postuan dago taldea. «Oraindik ez dugu lehenengo bueltarekin bukatu, baina oso ondo ari gara, eta lanean jarraitzeke asmoa dugu».

Helburuak ere ez dira makalak. Izan ere, Esther Lopezek hitzetan, «taldearen helburua da Superliga eta Erregina Kopa irabaztea».

Onenen artean

Hernaniko Kirol Elkarteko boleibol taldean egin zituen bere lehenengo pausuak Esther Lopezek, eta hortik aurrera, gero eta maila altua-



Esther Lopez hernaniarra, Europako boleibol jokalaririk onenetarikoak, Haro Rioja Voley Club taldeko liberoa da.

goko taldeetan ibili da; besteak beste, Toledo, Ciudad Real, Gasteiz, Caja de Avila, Burgos, Tenerife, Club Voley Miranda, eta lehenengo urtean, Menorcako Club Voleibol Ciudadellan.

Horrez gain, Europako libero eta jokalaririk onena izendatu dute hainbat denboralditan, eta taldean ere, hainbat sari irabazi ditu.

Horien artean, Champions League bat, 3 Erregina Kopa, 3 Superliga eta 4 Superkopa.


Jarraitzeke asmoa

Haroko taldearekin denboraldi baterako fitxa egin du, baina Lopez gustora dago, eta ezer esateko goiz bada ere, onartzen du: «ni oso pozik nago, eta talde honetan gustora jarraituko nuke». ||

ATLETISMOA

Lehenengo postua eta errekor berria Eva Esnaolak, Barzelonako 24 orduetan

Lehenengo asteburuan Barzelonako 24 orduko proba egin zen Can Dragoko pistetan, eta Eva Esnaola atleta hernaniarra igo zen podiumera, lehenengo postuan. Guztira, 210km eta 860m egin zituen, eta lasterketako 12garren orduan Espainiako errekor berria jarri zuen, 118,349km eginda. Bere marka baino hobea egin zutenak 10 atleta gizonezko izan ziren. Ultra-lasterketetako Nazioarteko Elkarteak antolatzen duen urteko proba garrantzitsuenetarikoa da, Barzelonako hau. ||



Azken egunak, Iruretagoyena bozkatzeko

Maitane Iruretagoyena proposatu du, besteak beste, Atletismoko Espainiako Federazioak denboraldiko atleta onenaren saria jasotzeko. Irabazlea boto bidez aukeratu da. Botoa emateko epea bihar bukatuko da: www.rfea.es/mejores2012. ||

ELIZA - PRODUKTU BILKETA PRESENTZAT Martuteneko presoei eramateko produktuak biltzen, gaur eta bihar

Martuteneko presoentzat hainbat produktu biltzen ari dira Parrokiko bulegoan (Izpizua 3). Gaur 20:00etatik 21:00etara izango da aukera, eta bihar, 12:00etatik 13:00etara. Produktuak dira: barruko arropa, hortzetako pasta eta zepiloa, tabako rubioa eta metxeroak, gutunazal eta zigiluak, turroi biguina, pilak, oinetakoak (41etik 44rako tailak), jaboi eta desodorantea, PINik gabeko telefono txartela (5 euro)... ||

HERNANI ERROTZEN

Orreaga 228-824 dokumentala, gaur

Hernani Errotzenek antolatuta, *Orreaga 778-824* dokumentala ikusteko aukera izango da gaur, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Biteri kultur etxean. Euskal Estatuaren sorreraren inguruko dokumentala da hau, Nabarraldeko grabatua. Orreagako gudaren inguruko mitoen artean gezurra direnak azaleratu dituzte bertan. ||

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Aisialdiko hezitzaile eta irakasleentzat ikastaroan izen-ematea, ostiralera arte

Doberak antolatuta, aisialdiko hezitzaile eta irakasleentzat ikastaroa izango da urtarrilean: haur etorkinak eta gazteak euskerara hurbiltzeko tresnak eta programak. Urtxintxak emango du. Izen-ematea, ostiralera arte: 688 660 707. ||

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrak emango nituzke; matematika, ingelese... 24 urteko neska euskaldun esperientziaduna. Deitu: 685 734 410
2 kotxerentzat garajea alokatzen dut, Garcia Goldarazen. Modu onean. Deitu: 686 246 770
Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)